



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2019/01/18
Ordua: 14:00
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Eva Maria Muñoz alkatearen lehendakaritzapean hasiera ematen zaio bilkurari zehaztutako orduan, Udaleko Idazkaria, Leire Ucin Soraluze, bertan izanik eta baita ondorengo zinegotziak ere:

Oihane Irastorza alzola
Iker Ballarin Zufiaurre
Oskar Zarrabeitia Asueta
Javier Retegui
Aroa Gonzalez Uriarte

Ez bertaratua:

Bakirtze Miota Sagastagoia

Alkateak bilerari hasiera ematen dio.

1.- Aurreko akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.

Inork ez du ezer komentatzeko, beraz, aurreko akta onartzen da.

2.- Dekretuen berri ematea

Oskarrek komentatzen du Nordic Walkingekin "ruta saludable" egitea behin bakarrik komentatu dela batzorde batean, eta komentatu zela egingo zela diru laguntza egonez gero. Beraiek ez dutela informaziorik jaso ez dirulaguntzari buruz, ezta esleipenari buruz ere. Oskarrek galdetzen du zenbatekoa izan den dirulaguntza; idazkariak erantzuten dio 3.800 Euro ingurukoa izan dela.

3.- HAPOaren aurrerakina onartzena, hala badagokio.

Alkateak dio hirigintza batzordean onartu zela eta orain plenora ekarri dela. Oskarrek esaten du ez dela beharrezkoa Plenotik pasatzea, beraz, Eaj abstenitu egingo dela.

Bozkatzen dute eta 4 aldeakoak BILDU, eta 2 abstentzio EAJ.

Beraz, HAPOaren aurrerakina onartzen da.



4.- Izurtzako trafiko arazoak konpontzeko neurriak, onartu, hala badagokio.

Haritzen txostenean zioen 6 etxebizitza adosatu zeudela, Garauntzako pasabidean, baina 5 dira. Aldatu du dokumentuan.

Bozkutzen dute eta EAJ 2 abstentzio eta BILDU 4 boto aldekoak. Beraz, Izurtzako trafiko arazoak konpontzeko neurriak onartzen dira.

.5.- Erabilera anitzeko lokalaren harira, Kontratazio pleguak onartzea, hala badagokio.

Oskarrek komentatzen du batzordean eskatu zutela, pleguetan bermearen baldintzak hobeto zehaztea, eta hala egin dela; baina aurrerago, beste puntu bat dago pleguetan bermeari buruz hitzegiten duena, eta hau ez da aldatu. Idazkariak dio aldatuko duela. Bozkutzen dute eta denak Ados agertzen dira aho batez, beraz, pleguak aho batez onartzen dira.

6.- Animaliak edukitzea eta babesteari dagokiom ordenantza arautzailearen onarpena, hala badagokio.

Alkateak dio badagoela animalien babeserako ordenantza, baina ez direla puntu guztiak bere osotasunean jasotzen.

Bozkutzen dute eta denak ados agertzen dira aho batez.

Beraz, animalien ordenantza onartzen dute aho batez.

Alkatea

Eva Maria Muñoz Irasuegi

Idazkaria

Leire Ucin Soraluze